

A portrait of a woman with long, dark, curly hair, wearing a white long-sleeved shirt. She is resting her head on her right hand and her left hand on a dark, textured surface. The background is a patterned wall.

NOÉMI BÉLANGER

Gauzen arima

El alma de las cosas

The soul of things

Antolatzailea | Organizador | Organizer



Los de bois



Babesleak | Patrocinadores | Sponsors



ERAKUSKETA | EXPOSICIÓN | EXHIBITION

NOÉMI BÉLANGER

GAUZEN ARIMA

EL ALMA DE LAS COSAS

THE SOUL OF THINGS



Bizitza berri bati hasiera emango diogu; iraganera begiratuko dugu, nostalgiarik gabe, gure ondarea berrikusteko eta hainbat diziplinaren eskura jartzeko helburuarekin. Horrela, gure ondarea aztertuz eta berrinterpretatuz, TOPIC eta bere museoa zentro bizi bihurtu nahi ditugu. Gure biltegiak zabaldu egingo dira, gure txotxongiloek bidaiatu dezaten eta hurbileko zein herrialde exotikoak bisita ditzaten. Izan ere, txotxongiloen ezaugarri nagusia haien bidaiari-izaera bada, kaxetan edo maletetan, herriz herri eta herrialdez herrialde.

Gure funtsak sortzaileen eskura jartzen dira, elkarlaneko, esplorazioko eta esperimentazioko ariketa baten bidez aktiba ditzaten, elkarrizketa ireki batean. Eta bidaiak batetik, munduko beste puntu batetik, *Gauzen arima* erakusketa dator.

Gauzen arima Noémi Bélanger artista eta txotxongilolari quebecar polifazetikoak sortutako erakusketa da. Bost eszenen bidez, hainbat tamainatako giza eta animalia-pertsonaiak ezagutzera gonbidatzen gaitu, baita giza eskalara iristen direnak ere. Noémik ikus-artearen eta arte eszenikoen arteko elkargunean lan egiten duten antzerki-eszenak sortzen ditu. Lana gizakian, haren hauskortasunean eta iheskortasunean oinarritzen da.

Erakusketa-proiektu honetan agerikoa da, halaber, hainbat materialekin egindako lana, eta arreta berezia ematen dio artilearen erabilerrari. Material horrekin egiten duen lan-prozesuan, Noémi Bélangerrek artilea aukeratzen du —animalia-jatorriko materiala—, bizidunaren berezko ezaugarri horiek gainditzeko eta sentsazio zinetesikoen bidez begiradari eragiteko. Materialen aukeraketaren, pertsonaien aurpegi-mimikaren eta gorputz-jarreraren bidez giro murgiltzailea sortzen du, baita emozioari eta enpatiarri —bai bestearekiko, bai bere buruarekiko— dei egiten dion ikusizko narrazioa ere. Lotura bat sortzen da eszenaren eta begiratzen dionaren artean, ihes egitea zaila den halo bat.

Bere sormen-prozesu osoan zehar, artista bere txotxongiloak pertsonifikatzen saiatu da, materiari bizia eman nahian. Bere pertsonaiek —artistak eszenaratzeko zalantzarik ez duen narrazio-lan berezi eta bakarrak— bisitariaren begiradan iltzatzen dute bere begirada, elkarrizketa bati ekiteko.

Noémi Bélangerren lana maisutasun teknikoagatik eta bere zigilu bereziagatik nabarmentzen da, eta bere lanak garrantzi handiko hainbat bakarkako erakusketatako protagonista izatera iritsi dira. Ikus-arteetan egiten duen lanarekin batera, Noémik txotxongilo ikuskizunak sortzen ditu eta bera da antzezlea. Bere ikuskizunak haur zein helduentzako dira eta giza izaerari buruzko hausnarketaren isla dira.

Noémi Bélangerren erakusketak amaiera emango dio sorkuntza eszenikoaren unibertso honetara, bere proposamenetara, materialetara, eszenografiatarara eta hurbilpenetara gerturatu nahi izan duen zikloari. Hemendik aurrera, aretoak txotxongiloaren, maskaren eta objektuen inguruan dabilen unibertsoko erakusketei atea irekiko die, begirada berri, zeharkako, artistiko, artisau, antropologiko eta historiko batekin, bere epizentrotik abiatuta eta mugetatik haratago.

Comenzamos una nueva vida que, torna la mirada al pasado, sin nostalgia, con el objetivo de revisar nuestro patrimonio y ponerlo a disposición de diversas disciplinas que conviertan el TOPIC y su museo en un centro vivo a partir del estudio y la reinterpretación de nuestro patrimonio. Nuestros almacenes se abren para que nuestros títeres viajen y visiten países cercanos o exóticos. Porque si algo caracteriza a las marionetas es su esencia viajera, en cajas o maletas, de pueblo en pueblo, de país en país.

Nuestros fondos se ponen a disposición de creadores y creadoras que los activan en un ejercicio de trabajo conjunto, de exploración y de experimentación; en un diálogo abierto.

Y de un viaje, de otro punto del mundo viene la exposición *El alma de las cosas*.

El alma de las cosas es una exposición creada por la polifacética artista y marionetista quebequesa Noémi Bélanger, que nos invita a descubrir, a través de cinco escenas, personajes humanos y animales de diversas dimensiones, llegando incluso a la escala humana. Noémi crea escenas teatrales que trabajando en la intersección entre las artes visuales y las artes escénicas. La obra, se inspira en el ser humano, en su fragilidad y su fugacidad.

En este proyecto expositivo es evidente también el trabajo con diversos materiales y llama la atención en especial el uso de la lana. En su proceso de trabajo con este material, Noémi Bélanger elige la lana —un material de origen animal— para trascender estas cualidades intrínsecas de lo vivo, apelando a la mirada mediante sensaciones cinestésicas. A través de la elección de los materiales, las mímicas faciales y las posturas corporales de los personajes crea una atmósfera envolvente y un visual y narrativo que apela a lo emocional y a la relación empática, tanto hacia el otro como hacia uno mismo. Se genera un vínculo entre la escena y quien la contempla, un halo del que es difícil escapar.

A lo largo de todo su proceso creativo, la artista se esmera en personificar sus marionetas, buscando dar vida a la materia. Sus personajes —verdaderas obras narrativas únicas que la artista no duda en poner en escena— clavan su mirada en la del visitante para entablar un diálogo.

El trabajo de Noémi Bélanger destaca por su maestría técnica y su sello único, llegando sus obras a protagonizar diversas exposiciones individuales de gran envergadura. En paralelo a su labor en las artes visuales, Noémi trabaja en la creación de espectáculos de marionetas en los que ella misma participa como intérprete. Sus espectáculos, dirigidos tanto al público infantil como al adulto, son un reflejo de su reflexión sobre la condición humana.

La exposición de Noémi Bélanger supone el fin de un ciclo que ha pretendido acercarse a este universo de la creación escénica, sus propuestas, materiales, escenografías y aproximaciones. A partir de ahora, la sala se abre a exposiciones del universo que gira en torno al títere, la marioneta, las máscaras y los objetos con una mirada renovada, transversal, artística, artesanal, antropológica, histórica desde su epicentro y hacia los desbordes

We are beginning a new life—one that looks back at the past without nostalgia, aiming to revisit our heritage and place it at the service of diverse disciplines. Our goal is to transform TOPIC and its museum into a living center through the study and reinterpretation of our collection. Our archives are opening up, allowing our puppets to travel to both neighboring and exotic lands. If one thing defines puppets, it is their traveling essence—moving in boxes and suitcases from village to village, from country to country.

Our collections are now available to creators who activate them through a process of collaboration, exploration, and experimentation—an open dialogue.

And from a journey, from another corner of the world, comes the exhibition *The Soul of Things*.

The Soul of Things is an exhibition created by the multifaceted Quebec artist and puppeteer Noémi Bélanger. She invites us to discover, through five scenes, human and animal characters of various sizes, some even reaching human scale. Noémi creates theatrical scenes that operate at the intersection of visual and performing arts. Her work is inspired by the human being, our fragility, and our fleeting nature.

In this exhibition project, her work with diverse materials is evident, particularly her striking use of wool. In her process, Noémi Bélanger chooses wool—a material of animal origin—to transcend the intrinsic qualities of living things, appealing to the viewer through kinesthetic sensations. Through her choice of materials, the facial expressions, and the physical postures of her characters, she creates an immersive atmosphere and a visual narrative that appeals to emotion and empathy, both toward others and toward oneself. A bond is formed between the scene and the observer—a halo that is difficult to escape.

Throughout her entire creative process, the artist takes great care to personify her puppets, seeking to breathe life into matter. Her characters—truly unique narrative works that the artist does not hesitate to bring to the stage—lock eyes with the visitor to engage in a dialogue.

Noémi Bélanger's work stands out for its technical mastery and unique signature, with her pieces headlining several major solo exhibitions. Parallel to her work in the visual arts, Noémi creates puppet shows in which she herself performs. Her shows, aimed at both children and adults, reflect her meditations on the human condition.

This exhibition by Noémi Bélanger marks the end of a cycle that sought to explore the universe of stage creation—its proposals, materials, scenography, and approaches. From this point forward, the gallery opens itself to the universe of puppets, marionettes, masks, and objects with a renewed, transversal gaze: artistic, artisanal, anthropological, and historical, moving from its epicenter toward new frontiers.





ERRESEINA | RESEÑA | REVIEW

01

FELTROTIK BIZITZARA

DEL FIELTRO A LA VIDA

FROM FELT TO LIFE

LOUISE LAPOINTE

**Castelierseko fundatzaile eta zuzendari artistikoa eta
UNIMA Internationaleko presidentea**

Fundadora y directora artística de Casteliers y presidenta de
UNIMA Internacional

Casteliers founder and artistic director and UNIMA international President

Noémi Bélanger eskultorea, artisaua, txotxongilogilea, aktorea eta musikaria da, eta maisutasunez lan egiten du arlo desberdinetan, arte bisualen eta eszenikoen, objektuaren eta pertsonaiaren, eskuaren eta arnasaren artean.

Emakume artisten leinu zabal batetik dator, eta sorkuntzaren eremuan egin duen ibilbidea ondare batean oinarritzen da, non sormena berezko hizkuntza gisa transmititzen den, ia munduan egoteko modu bat balitz bezala. Bere lehenengo eskulturetatik hasita, alegiazko pertsonaiak sortu ditu, materialean ezkutatuta egon direla ematen dutenak, esku atsegin batek itzaletatik kanpo gidatuak izateko, arnasa hartzeko aukera emango dielako esperoan. Izaki horiek, antropomorfikoak zein animaliak, aldi berean fantasiaskoa eta sakonki gizatiarra den mundu batetik sortuak dira. Bizia daramate


Noémi Bélanger es escultora, artesana, marionetista, actriz y música que navega con maestría por la intersección entre las artes visuales y escénicas, entre el objeto y el personaje, entre la mano y la respiración.

Parte de una larga estirpe de mujeres artistas, su trayectoria creativa se basa en un legado en el que la creatividad se transmite como un lenguaje natural, casi como una forma de estar en el mundo. Desde sus primeras esculturas, ha creado personajes fabulosos que parecen estar esperando, escondidos en el material, confiando en que una mano amable los guíe fuera de las sombras y les dé la oportunidad de respirar. Estos seres, ya sean antropomórficos o animales, emergen de un mundo que es a la vez fantástico y profundamente humano. Llevan dentro de sí una vibración que conmueve

Noémi Bélanger is a sculptor, craftswoman, puppeteer, actress, and musician that artfully navigates the intersection between visual and performing arts, between object and character, between hand and breath.

Part of a long line of female artists, her creative journey is rooted in a legacy where creativity is passed down like a natural language, almost like a way of being in the world. From her earliest sculptures onwards, she has crafted fabulous characters that seem to be in waiting, hiding in the material, hoping for a kind hand to guide them out of the shadows and give them a chance to breathe. These beings, whether anthropomorphic or animal-like, emerge from a world that is both fantastical and profoundly human. They carry within them a vibration that immediately touches the







barruan, eta horrek berehala hunkitzen ditu haiek behatzen dituztenak.

Urteetan zehar, Noémi Bélangerrek savoir-faire paregabea garatu du feltroaren artista gisa, dagozkion forma eta teknika ugariak menderatuta. Eskuetan, material xume hori ilaje, luma, adar, apatx... bihurtzen da. Izan ere, bizitzaren esentzia bera ukigarri bihurtzea ahalbidetzen dio feltroak. Bere orratz-lanak fintasuna eta adierazkortasuna, izaki bizidunen berotasuna eta ametsen hauskortasuna, eta testuren eta formen arteko interakzioa ekartzen ditu gogora. Orratz-feltratzea ia isileko ekintza da, pazientzia gogoetatsua eta materialaren xuxurlak entzutea eskatzen du, Noémik gurekin trebetasunez eta poesiaz partekatzen dituen xuxurlak, alegia.

Bestetik, bere eskulturek eskala eta metafora desberdinekin

inmediatamente a quienes los contemplan.

A lo largo de los años, Noémi Bélanger ha desarrollado un savoir-faire único como artista del fieltro, dominando sus múltiples formas y técnicas. En sus manos, este sencillo material se convierte en pelaje, plumas, cuernos, pezuñas... El fieltro le permite hacer tangible la esencia misma de la vida. Su trabajo con la aguja evoca lo delicado y lo expresivo, la calidez de los seres vivos y la fragilidad de los sueños, y la interacción entre texturas y formas. El fieltro con aguja es un acto prácticamente silencioso, que requiere una paciencia meditativa y escuchar los susurros del material, susurros que Noémi comparte con nosotros con habilidad y poesía.

Sus esculturas también juegan con diversas escalas y metáforas, lo que da lugar a

people who behold them.

Over the years, Noémi Bélanger has developed a unique savoir-faire as a felting artist, mastering its many forms and techniques. In her hands, this simple material becomes fur, feathers, horns, hooves. . . Felting allows her to make the very essence of life tangible. Her needlework conjures up both the gentle and the expressive, the warmth of living things and the fragility of dreams, and the interplay between textures and shapes. The act of needle felting, virtually silent, requires meditative patience and listening to the material's whispers—whispers that Noémi shares with us with both skill and poetry.

Her sculptures also play with various scales and metaphors, resulting in a disturbing confrontation between the strange and the familiar.



egiten dute jolas, ezezagunaren eta ezagunaren arteko lehia sortzeko. Antzinako ipuin batetik ateratakoak dirudite, naturak eta fantasiak harmonia perfektuan elkarreragiten duten mundu batetik. Bere lanak lotura argia du txotxongiloen artearekin: pertsonaia bakoitzak ekintzan murgiltzeko prest dagoela dirudi, istorio bat kontatzeko, bizia hartzeko. Izan ere, berarentzat, berez, progresio bat da arte eszenikoen munduan menturatzea, non mugimenduari eta narrazioari aplikatzen dien formarekiko eta bolumenarekiko maisutasuna.

UQAMen, Montrealen, txotxongilo garaikideetako ikasketak amaitu ondoren, Noémik bere konpainia sortu zuen, L'Os de Bois. Ordutik, konpainiak leku paregabea du Quebecoko txotxongiloen eszenan. Bere unibertso bereziak eszenatokian hartzen du bizia, eta edertasunak hartzen du

una inquietante confrontación entre lo extraño y lo familiar. Parecen sacadas directamente de un cuento ancestral, de un mundo en el que la naturaleza y la fantasía interactúan en perfecta armonía. Su obra guarda una clara afinidad con el arte de las marionetas: cada personaje parece dispuesto a entrar en acción, a contar una historia, a cobrar vida. No es de extrañar que para ella fuera una progresión natural aventurarse en el mundo de las artes escénicas, donde aplica su maestría de la forma y el volumen al movimiento y la narración.

Una vez finalizados sus estudios de marionetas contemporáneas en la UQAM, en Montreal, Noémi fundó su propia compañía, L'Os de Bois. Desde entonces, la compañía se ha labrado un lugar único en la escena de las marionetas de Quebec. Su universo singular cobra vida en el escenario, y la

They seem to have stepped straight out of an ancient tale, from a world where nature and fantasy interact in perfect harmony. Her work harbours an obvious affinity with puppetry: every character seems poised to burst into action, to tell a story, to come to life. Unsurprisingly, it was a natural progression for her to venture into the world of performing arts, where she applies her mastery of form and volume to the task of movement and storytelling.

After studying contemporary puppetry at UQAM, in Montréal, Noémi founded her own company, L'Os de Bois. The company has since carved out a unique place for itself on the Québec puppetry scene. Her singular universe comes to life onstage, and beauty takes the lead. An inquisitive and dedicated artist, she also works with other artists on their productions, bringing her







protagonismoa. Artista bitxia eta dedikatua, beste artista batzuekin ere kolaboratzen du bere ekoizpenetan, bere ikuspegi argia eta nortasun denboragabea ekarrita.

Noémi Bélanger artista bikaina da. Fintasunez, pasioz, eskuzabaltasunez eta benetakotasunez partekatzen ditu bere ezagutzak, eta bere artearen sekretuak irakasten ditu prestakuntza profesionalaren eta elkarlanaren bidez. Atsegina eta naturala, lantzen duen materiala bezala, Noémik zuntz bakoitza, forma bakoitza arimaduna dirudien mundu batera gonbidatzen gaitu.

Erakusketa bikain honek bere maisutasun artistikoaren testigantza ematen du!

belleza toma el protagonismo. Artista curiosa y dedicada, también colabora con otros artistas en sus producciones, aportando su perspectiva lúcida y su personalidad atemporal.

Noémi Bélanger es una artista espléndida. Comparte sus conocimientos con finura, pasión, generosidad y autenticidad, e imparte los secretos de su arte a través de la formación profesional y el trabajo colaborativo. Amable y natural, como el material que trabaja, Noémi nos invita a un mundo en el que cada fibra, cada forma, parece poseer alma.

¡Esta magnífica exposición da testimonio de su maestría artística!

discerning perspective and timeless personality to the table.

Noémi Bélanger is a generous artist. She shares her know how with finesse, passion, largesse, and authenticity, imparting the secrets of her art through professional training and collaborative work. Gentle and natural, like the material she crafts, Noémi invites us into a world where every fibre, every shape, seems to possess a soul.

This magnificent exhibition is testimony to such artistry!





AITORPENA | TESTIMONIO | TESTIMONY

02

NIRE SORMEN-PROZESUA

MI PROCESO CREATIVO

MY CREATIVE PROCESS

NOÉMI BÉLANGER

Bidaia

Hemen, nire sortze-prozesuan zehar eramango zaituzte bidaian. Zoko, beldur eta desioetako bakoitza erakutsiko dizkizuet bertan, baita belarrira emeki xuxurlatutako hainbat sekretu ere. Lehenik eta behin, nire ibilbidearen ikuspegi orokorra eskainiko dizuet, zalantzaren, motibazioaren eta inspirazioaren bidez garatutako sortze-prozesuaren zirrikituetan murgildu aurretik.

Mundu narratibo eta bisualak sortzen ditut, bizigabeari bizia emateko dudak nahiak gidatuta. Nire lanaren bidez, espezieen arteko loturak zehaztu nahi ditut berriro, elkarreragiten duten eta agerian geratzen diren pertsonaiak, gizaki zein animaliak, aurkezteko. Nire obren neurriak aldakorrek dira, giza eskala bezain handiak izan daitezke eta elkarrekin batera aritzen dira eszenatokian, erakusketa-aretoetan eta

El viaje

Permítanme llevarlos de viaje por mi proceso creativo, donde les mostraré cada rincón, cada miedo y cada deseo, así como tantos secretos susurrados suavemente al oído. En primer lugar, les ofreceré una visión general de mi trayectoria, antes de adentrarme en los entresijos del proceso creativo, que se desarrolla a través de la duda, la motivación y la inspiración.


Creo mundos narrativos y visuales guiada por mi deseo de dar vida a lo inanimado. A través de mi trabajo, busco redefinir los vínculos entre las especies, presentando personajes humanos y animales que interactúan y se revelan. Mis obras, que varían en tamaño y pueden ser tan grandes como la escala humana, coexisten en el escenario, en salas de exposición y en la pantalla.

The journey

Allow me to take you on a journey through my creative process, where I will introduce you to every nook and cranny, every fear and desire, like so many secrets whispered softly in your ear. First, I will give you an overview of my background, before venturing into the finer twists and turns of the creative process, as it unfolds through doubt, motivation, and inspiration.

I create narrative and visual worlds guided by my desire to bring the inanimate to life. Through my work, I seek to redefine the bonds between species, presenting human and animal characters who interact and reveal themselves. My works, which vary in size and can be as large as the human scale, coexist on stage, in exhibition halls and on screen. My work







pantailan. Nire lana poema bisual bat da, sinbolismoz ehotua.

Artilezko eskulturak sortzen ditut, antzinako teknika ezezagun bat erabiliz, orratz-feltratzea izenekoa, eta aurrerago azalduko ditut bere oinarrizko printzipioak.

Orratzaren milaka puntadetatik sortutako artisau-ehundurek lana eskuz eginda dagoela gogorarazten digute, eta bere atzean dagoen giza existentziaren oihartzuna helarazten diete pertsonaiei. Artile feltratua osaera irregularreko materiala denez gero, halako imperfekzio itxura ematen die nire lanei, gizatasun kutun baten isla. Animalien ilaje antzeko larrua duten gizakiak dira eta efektu bisual horrek ukimen-sentsazioak pizten ditu behatzailearengan, eta elkarriketarako bidea irekitzen dio.

Umeentzako hitzik gabeko nire txotxongilo-ikuskitzuna,

Mi trabajo es un poema visual entretejido con simbolismo.

Creo esculturas de lana utilizando una técnica antigua y poco conocida llamada fieltrado con aguja, cuyos principios básicos explicaré más adelante.

Las texturas artesanales surgidas de miles de puntadas de la aguja nos recuerdan que el trabajo está hecho a mano, y trasladan a los personajes el eco de la existencia humana que hay detrás de él. Al ser un material de composición irregular, la lana fieltrada confiere a mis obras una cierta imperfección, reflejo de una humanidad entrañable. El efecto visual de estos humanos dotados de una piel parecida al pelaje animal despierta sensaciones táctiles en el observador y suscita un diálogo con el visitante.

Mi espectáculo de marionetas sin palabras para público

is a visual poem laced with symbolism.

I create wool sculptures using an ancient and little-known technique called needle felting, the basic principles of which I will explain later.

The artisanal textures left by thousands of needle stabs remind us that the needlework is done by hand, transposing onto the characters an echo of the human existence behind the labour. As a material with an uneven composition, felted wool gives my works a certain imperfection, mirroring an endearing humanity. The visual effect of these humans with animal-like skin awakens tactile sensations in the observer and, hopefully, sparks a dialogue with the visitor.

My wordless puppet show for young audiences, *Scribouillis*, introduces us to a little



Scribouillisek, Mimi izeneko neskato bat eta hark egindako zirriborroaren haragitzea — gose aseezina duen munstro bat— aurkezten dizkigu. Istorioaren azpian, nire sortze-prozesuaren metafora bat dago, sortzearen pozarena, ezezagunarekiko beldurrarena eta denborarekin berezko borondatea garatzen duela dirudien sorkuntza bati aurre egitearen mirariarena.

Gozatu egiten dut sentsibiltate artistiko desberdinak biltzen, eta benetan atsegin dut beste artista batzuekin lankidetzan aritzea, baliabideak esploratzeko aukera ematen didaten proiektuetan. Horrela, aukera aprobetxatzen dut nire arte-modua ezagutarazteko eta nire irisgarritasun-balioak sustatzeko. 2024an, nire lehen film laburra ekoitzi eta zuzendu nuen: Scribouillis The Movie, haurren irudimena omentzen duen ikuskizunaren moldaketa.

infantil, Scribouillis, nos presenta a una niña llamada Mimi y a la encarnación de su garabato: un monstruo con un apetito insaciable. En la historia subyace una metáfora de mi propio proceso creativo, de la alegría de crear, del temor a lo desconocido y de la maravilla que se experimenta al enfrentarse a una creación que parece desarrollar voluntad propia con el paso del tiempo.

Disfruto reuniendo diferentes sensibilidades artísticas y me encanta colaborar con otros artistas en diversos proyectos que me permiten explorar diferentes medios. Al hacerlo, aprovecho la oportunidad para dar a conocer mi forma de arte y promover mis valores de accesibilidad. En 2024, produje y codirigí mi primer cortometraje: Scribouillis The Movie, una adaptación del espectáculo que rinde homenaje a la imaginación de los niños.

girl called Mimi, and to the incarnation of her scribble: a monster with an insatiable appetite. The story offers a subtextual metaphor for my own creative process, for the joy of creating, the apprehension of the unknown, and the wonder experienced when faced with a creation that seems to develop a will of its own over time.

I enjoy bringing different artistic sensibilities together and I delight in collaborating with other artists on various projects that allow me to explore different mediums. In doing so, I seize the opportunity to raise awareness of my art form and promote my values of accessibility. In 2024, I produced and co-directed my first short film. Scribouillis, The Movie is an adaptation of the show, and pays tribute to children's imagination.







2018an L'Os de Bois sortu nuen, txotxongiloen arteari eskainitako antzerki-konpainia. Konpainiaren izenak txotxongiloaren barne-egiturari egiten dio aipamen; zur artikulatuz egina dago eta mugitzeko aukera ematen dio horrek. Eskultore eta ehungintzako artista gisa hasi nuen nire ibilbidea, baina gero zura aurkitu nuen, eta material horri esker, eskulturak sortzetik txotxongiloak diseinatzera igaro nintzen. Hala, aurkikuntza horrek sorkuntzarako bide berriak ireki zizkidan.

Garapen profesionaleko ikastaroak eta tailer kulturalak eskoletan emanda partekatzen ditut nire pasioak. Nire ibilbide artistikoan erakunde hauek izan ditut babesle: Conseil des arts et des lettres du Québec, Canada Council for the Arts, Laval hiria eta Regroupement d'organismes et d'artistes professionnels lavallois (ROCAL).

En 2018 fundé L'Os de Bois, una compañía teatral dedicada al arte de las marionetas. El nombre de la compañía hace referencia a la estructura interna de la marioneta, hecha de madera articulada, que le permite moverse. Inicié mi trayectoria como escultora y artista textil, pero luego descubrí la madera, lo que me permitió pasar de crear esculturas a diseñar marionetas, un descubrimiento que me abrió nuevas vías creativas.

Comparto mis pasiones impartiendo cursos de desarrollo profesional y talleres culturales en escuelas. En mi trayectoria artística cuento con el apoyo del Conseil des arts et des lettres du Québec, el Canada Council for the Arts, la ciudad de Laval y el Regroupement d'organismes et d'artistes professionnels lavallois (ROCAL).

In 2018, I founded L'Os de Bois, a theatre company dedicated to puppetry arts. The company's name refers to the puppet's inner structure, made of articulated wood, which gives it the ability to move. At first a sculptor and textile artist, I then discovered wood, which allowed me to transition from creating sculptures to designing puppets, a discovery that opened new creative avenues.

I share my passions by giving professional development courses as well as cultural workshops in schools. I am supported in my artistic journey by the Conseil des arts et des lettres du Québec, the Canada Council for the Arts, the City of Laval, and the Regroupement d'organismes et d'artistes professionnels lavallois (ROCAL).



Kapulu artistikoa

Sainte-Rose distritu historikoan, Lavalen, Parc de la Rivière-des Mille-Îles-etik oso gertu, erreserba natural batean dago nire lantegia, nire lanari eskainitako lekua. Gozatu egiten dut zorioneko aterpe honetan, hain denbora luzean etxean lanean aritu ondoren, adimena sakabanatuta nuela gela guztietan barreiatutako materialekin eta pertsonaiekin batera.

Lantegia nire babesleku pertsonala da, neure buruarekin bakarrik egon bainaiteke bertan. Kapulua bezala, lehen transformazioak gertatzen diren lekua da, non materiak forma hartu eta bizia hartzen duen. Hara noa nire buruarekin konektatzera. Nire ibilbidean zehar egin ditudan lanez eta mugariez inguraturik, hobeto azter ditzaket haien esentzia eta norabidea; iparrorratz antzeko bat sormenaren zurrunbiloaren

El capullo artístico

Situado en el distrito histórico de Sainte-Rose, en Laval, muy cerca del Parc de la Rivière-des Mille-Îles, una reserva natural, mi taller es un lugar dedicado a mi trabajo. Disfruto de este refugio feliz, después de haber trabajado durante tanto tiempo en casa con mi mente dispersa junto con los materiales y personajes esparcidos por todas las estancias.


El taller es un refugio personal donde puedo estar sola conmigo misma. Al igual que un capullo, es un lugar donde se producen las primeras transformaciones, donde la materia toma forma y cobra vida. Voy allí para conectar conmigo misma. Rodeada de mis obras e hitos a lo largo de mi trayectoria, puedo evaluar mejor su esencia y su dirección, como una brújula en medio de un torbellino creativo. Los materiales y las herramientas están allí,

The artistic cocoon

Located in the historic district of Sainte-Rose in Laval, a few steps away from the Parc de la Rivière-des Mille-Îles, a wildlife preserve, my workshop is a place dedicated to my work. I savour this happy retreat, after having worked at home for so long with materials and characters scattered throughout the rooms, and my mind scattered along with them.

The workshop is a personal retreat where I can be alone with myself. Just like a cocoon, it is a place where first transformations occur, where matter takes shape and awakens. I go there to check in with myself. Surrounded by my works, milestones along my journey, I can better gauge their essence and their direction, like a compass in the midst of a creative flurry. The materials and tools are







erdian. Bertan ditut materialak eta tresnak, mahai gainean jarrita, erabiltzera gonbidatuko banindute bezala. Espazioa moldagarria da eta edozein unetan berrantolatzen da nire beharrak asetzeko. Gela bat ehungintzarako erabiltzen dut, beste bat hautsa sortzen duen lanerako, eta egongela bat kontenplaziorako, idazketarako eta gonbidatuei harrera egiteko.

Lorategi handi bat du, ametsak lantzeko adina. Bertan biltzeko, partekatzeko eta ezagutzak transmititzeko lekua da. Lantegiaren eta lorategiaren artean mugitzea beti da onuragarria. Sarritan bururatzen zaizkit ideiak barazki-ilaretan edo mugurdiak hazten diren baratzean. Mugimendua ote? Arnas sakona ote? Hain errotuta dagoen lan fisiko honetan oldarra piztu eta bulkadak sustatzen dizkidan erritmoa aurkitzen dut.

Asko gustatzen zait komunitateko bizitzaren

dispuestos sobre la mesa, como si me invitaran a utilizarlos. El espacio es adaptable y se reorganiza en cualquier momento para satisfacer mis necesidades. Una habitación está dedicada al trabajo textil, otra al trabajo que genera polvo, y hay una sala de estar para la contemplación, la escritura y la recepción de invitados.

El jardín es lo suficientemente grande como para cultivar sueños. Es un lugar para reunirse, compartir y transmitir conocimientos. Moverse entre el taller y el jardín siempre resulta beneficioso. A menudo se me ocurren ideas entre las hileras de verduras o en el huerto de frambuesas. ¿Es el movimiento? ¿Es la respiración profunda? En este trabajo físico tan arraigado, encuentro un ritmo que fomenta impulsos y despierta el ímpetu.

Me encanta la idea de la vida en comunidad e intento

there, laid out on the table, as if to extend an invitation. The space is adaptable and is reorganized at any given moment to meet my needs. One room is dedicated to textile work, another to dust-generating work, and there is a lounge for contemplation, writing and welcoming guests.

The garden is large enough to cultivate dreams. It is a place for coming together, for sharing and for transmitting knowledge. Moving between the workshop and the garden is always beneficial. Ideas often come to me between rows of vegetables or in the raspberry patch. Is it the movement? Is it the deep breathing? In this grounded physical work, I find a rhythm that fosters impulses and creates momentum.

I love the idea of community life and I try to get more involved by creating



ideia, eta gehiago inplikatzeko saiatzen naiz auzoan ekitaldiak antolatzen. Gero, kapulutik irteteko premia sortzen den unea iristen da: krisalidak bere zikloa osatzen du, hegoak hedatu egiten dira, eta zeruertzerietara abiatzen dira. Tokiko zein nazioarteko hainbat publikorekin elkarreragin ahal izateko pribilegio hori etengabe berritzen da. Nire lanak Quebecoko lau zokoetara eramanez, Abitibi eta Iparraldeko, baita beste kontinente batzuetara ere. Benetan hunkitzen naute ikusleekiko topaketa zintzo eta bizigarri hauek guztiak. Egia esan, publikoa da gure ofizioa erakusten diguna, eta biziki eskertzen dut horregatik. Hain dira eskuzabalak begiak, bihotzak eta gogoak zabaltzean! Jasotako bosteko beroen oroitzapena atsegin dut erakusketen inaugurazioetan, baita haurren besarkadak ere ikuskizunaren ondoren.

involucrarme más creando eventos en la vecindad. Luego llega un momento en el que surge la necesidad fundamental de salir del capullo, la crisálida completa su ciclo, las alas se despliegan y emprenden el vuelo hacia nuevos horizontes. Es un privilegio que se renueva constantemente poder interactuar con diferentes públicos, tanto locales como internacionales. Mi trabajo me ha llevado a los cuatro rincones de Quebec, hasta las regiones de Abitibi y la Costa Norte, así como a otros continentes. Me conmueven de verdad todos estos encuentros sinceros y estimulantes con el público. En realidad, es el público el que nos enseña nuestro oficio, y por ello estoy profundamente agradecida. ¡Qué generosos son al abrir sus ojos, sus corazones y sus mentes! Atesoro el recuerdo de los apretones de manos llenos de emoción en las inauguraciones de las exposiciones y los abrazos

neighbourhood events. Then comes a time when the fundamental need to break out of the cocoon sets in, the chrysalis completes its cycle, wings unfold and take flight towards new horizons. It is a constantly renewed privilege to interact with different audiences, both local and international. My work has taken me to the four corners of Québec, as far as the Abitibi and the North Shore regions, as well as to other continents. I am sincerely moved by all these heartfelt and stimulating encounters with the public. It is really the public that teaches us our craft, and for this I am deeply grateful. How generous of them to open their eyes, their hearts, and their minds! I cherish the memory of handshakes bursting with emotion at exhibition openings and hugs from children after a show.







Arte eszenikoak, lehenik eta behin, lotura eta sinergiarako une bat dira, non bat egiten duten gizabanakoek, haien taupadak batera biltzen dituen bihotz bakar bat bailiran, gizabanako bakoitzaren pultsuak markatzen duen erritmoan. Leku horretan, besteen emozioak entzun ahal dituzu, zure emozioen berri ematen dizuten bitartean. Horren froga dira aretoan zehar zabaltzen den barre kutsakorra edo isiltasun erabatekoa, ikusleek adi arnasari eutsi bitartean. Izate kolektiboa nagusitzen da bertan.

de los niños después de un espectáculo.

Las artes escénicas son, ante todo, un momento de conexión y sinergia en el que los individuos se funden en uno, como un corazón que late al unísono y cuyo ritmo está marcado por el pulso de cada individuo. Es un lugar donde puedes escuchar las emociones de los demás mientras se hacen eco de las tuyas propias. Prueba de ello son la risa contagiosa que se extiende por la sala o el silencio absoluto cuando el público expectante contiene la respiración. Es el espíritu colectivo el que prevalece.

Performing arts are first and foremost a moment of connection and of synergy where individuals come together as one, like a single beating heart whose rhythm is shaped by each individual's pulse. Where you can hear others' emotions as they echo your own. The contagious laughter that spreads through the room or the absolute silence when the audience holds its breath in anticipation bears witness to this. It is the collective spirit that prevails.



Artilea moldatzen

Nire pertsonaiak sortzeko gogokoen dudana materiala artilea da, feltratze-prozesu baten bidez moldatzen dudana. Izan ere, feltroa da irundu behar ez den ehun bakarra moldatu ahal izateko. Ehuna bere irazki eta bilbearekin ordenatutako patroï batean egituratzen da, diagrama kartesiar batean bezala; feltroa, berriz, ausaz elkarlotzen diren zuntz txiki ugari osatua da. Nire sortze-prozesuak sareko lan hori islatzen du: artile-zuntzak bezala, ideiak ere bata besteari atxikitzen zaizkio mugimendu intuitibo batean, eta horrek kohesio-sentsazioa ematen dio lanari.

Feltratua munduan ezagutzen den ehungintzako teknikarik zaharrena da. Animalia-jatorriko zuntzak zapalduta lortzen da, normalean ardi-artilea. Zuntzak marruskaduraz korapilatzen dira eta material

Esculpiendo lana

Mi material favorito para crear mis personajes es la lana, que esculpo mediante un proceso de fieltro. El fieltro es el único tejido que no tiene que ser hilado para ser moldeado. A diferencia del tejido, que se estructura en un patrón ordenado con su urdimbre y trama, como en un diagrama cartesiano, el fieltro consiste en múltiples fibras pequeñas que se entrelazan aleatoriamente. Mi proceso creativo refleja este trabajo en red: al igual que las fibras de lana, las ideas se adhieren unas a otras en un movimiento intuitivo, lo que proporciona a la obra una sensación de cohesión.

El fieltro es la técnica textil más antigua que se conoce en el mundo. Se consigue comprimiendo fibras de origen animal, normalmente lana de oveja. Las fibras se enredan por

Sculpting Wool

My favourite material for creating my characters is wool, which I sculpt using a felting process. Felt is the only textile that does not have to be spun to be fashioned. Unlike weaving, which is structured in an orderly pattern with its warp and weft, as in a Cartesian diagram, felting consists of multiple small fibres that become randomly entangled. My creative process mirrors this network: like wool fibres, ideas cling to one another in an intuitive motion, providing the work with a sense of cohesion.

Felt making is the oldest known textile technique in the world. It is achieved by compressing animal fibres, most commonly sheep's wool. The fibres become entangled through friction and form a compact material. According







trinko bat eratzen dute. Kondairak dioenez, ukuiluetan gordetako ganaduak bere apatxekin zapaltzen zuen eroritako ilea, eta horrela, denborarekin, feltrozko tapiz bat eratzen zuen. Gainera, nahikoa omen da gauez ilajearen gainean lo egitea, denborarekin feltro bihurtzeko. Behaketa hauek arte-forma bat sortu zuten, alfonbrak, kapelak, botak, yurtak eta askoz gehiago sortzeko teknikak hobetu zituenak.

Feltratzeke bi modu daude: ur beroko feltratzea eta orratz-feltratzea artile lehorrekin. Bi teknikak marruskaduraren printzipioan oinarritzen dira, zuntzak elkarri itsasteko. Orratzarekin feltratzea da nire pertsonaiak sortzeko gogokoen dudan teknika. Orratz bereziekin —muturrean arpoi-formako kako txikiak dituztenak— artilean behin eta berririo ziztatuz elkarlotzen dira bere zuntzak —azalean

fricción y forman un material compacto. Según la leyenda, el ganado que se guardaba en los establos pisoteaba con sus pezuñas el pelo caído, lo que con el tiempo daba lugar a la formación de una alfombra de fieltro. La historia también cuenta que bastaba con dormir sobre el pelaje noche tras noche para que, con el tiempo, se transformara en fieltro. Estas observaciones dieron lugar a una forma de arte cuyas técnicas se han perfeccionado para crear alfombras, sombreros, botas, yurtas y mucho más.

Hay dos tipos de fieltro: el fieltro con agua caliente y el fieltro con aguja con lana seca. Ambas técnicas se basan en el mismo principio de fricción que hace que las fibras se adhieran entre sí. El fieltro con aguja es mi técnica preferida para crear mis personajes. Mediante agujas especializadas con

to legend, cattle kept in stables would stamp the fallen fur with their hooves, resulting, over time, in the formation of a felt carpet. The story also goes that simply sleeping on fur night after night was all it took for it to morph into felt over time. These observations gave rise to an art form whose techniques have been refined to create rugs, hats, boots, yurtas and more.

There are two types of felting: welt (or hot water) felting and needle felting with dry wool. Both techniques are based on the same friction principle that causes the fibres to cling to each other. Needle felting is my preferred technique for creating my characters. Using specialized needles with small harpoon-shaped hooks, the wool fibres—which themselves have small scale-like structures on their surface—become intertwined



ezkata-formako egitura txikiak dituztenak—. Artile lehorrarekin egindako feltratze-prozesu horri esker, zuntzak elkarren artean itsatsi eta trinkotu egiten da materiala, eta horrek ematen du bolumena sortzeko aukera. Kasualitatez deskubritu nuen artilea sorkuntzarako material gisa, eta hainbeste erakarri ninduen nire lanerako gehitu nuen.

Batez beste, ardi bakoitzeko hiru kilogramo artile gordin mozten da. Artileari lastoa, belarra eta lokatza kendu eta garbitu ondoren, kilogramo batera murrizten da haren pisua! Begien bistakoa da etxeko ardien ilea etikoki moztearen garrantzia, ez baitute ilajea aldatzeko gaitasunik. Beharrezkoa da, beraz, animaliaaren ongizateari laguntzeko eta aprobetxatu ahal den material berriztagarria ekoizteko. Adibidez, Mère-grand pertsonaiak zortzi kilo


pequeños ganchos en forma de arpón, las fibras de lana, que tienen pequeñas estructuras en forma de escamas en su superficie, se entrelazan gracias al movimiento punzante de la aguja. Este proceso de fieltro en seco permite que las fibras se adhieran entre sí y densifiquen el material para crear volumen. Descubrí la lana como material creativo por casualidad, y me fascinó tanto que la adopté para mi trabajo.

El esquilado produce una media de tres kilogramos de lana cruda por oveja. Una vez eliminados la paja, la hierba y el barro, y lavada la lana, ¡su peso se reduce a un kilogramo! Podemos ver claramente la importancia del esquilado ético de las ovejas domésticas, que carecen de capacidad para mudar el pelaje. Es necesario, contribuye al bienestar del animal y produce un material renovable que se puede aprovechar. Por ejemplo, el

through the stabbing motion of the needle. This dry felting process allows the fibres to cling to each other and densify the material, creating volume. Although I discovered wool as a creative material by chance, it was my fascination with it that led me to adopt it.

Shearing yields an average of three kilograms of raw wool per sheep. Once the straw, grass and mud have been removed and the wool has been washed, its weight drops to one kilogram! We can clearly see the importance of the ethical shearing of domestic sheep, who are incapable of moulting. It is necessary, contributes to the animal's well-being and produces a renewable material that can be put to good use. For example, the Mère-grand character weighs eight kilos, so eight sheep contributed to her creation!







pisatzen ditu, beraz, zortzi ardik lagundu zuten bere sorkuntzan!

Nola eman ahal dio gizatasun-neurria pertsonaia bati artilezko xerlo soil batek, ilea mozteko prozesuaren hondar batek bezala, hura inperfektu, hauskor eta maitagarri bihurtuta? Nola jaio ahal da pertsonaia bat ezerezetik? Magiak bi zentzuetan gertatzen da: material iragankorra denez pertsonaia desagertu eta etorri zen lekura itzuliko da, irudimenaren eta memoriaren erresumara, eta, horrela, bizitzaren hauskortasunaren seinale bihurtuko da.

